

1.000.000.000.000.000.000.000.000

BENJI FRANKLIN

KID ABERATS AZKARRA



DIRUA
IRABATA

(eta dinosauro hiltzaileei ere bai!)

RAYMOND BEAN

desclée

BENJI FRANKLIN

KID ABERATS AZKARRA



**DIRUA
IRABATA**

(eta dinosauro hiltzaileei ere bai!)

egilea
Raymond Bean

ilustrazioak
Matthew Vimislik

itzulpena
Igone Menika Larrinaga



Aurkibidea

1. ATALA	
Irismen handiko mega ametsak.....	6
2. ATALA	
Guaitzakiapp.....	12
3. ATALA	
Nire lehenengo milioia.....	24
4. ATALA	
Pilamilioiduna?.....	33
5. ATALA	
Ongizaterako Atea.....	38
6. ATALA	
B.A.D.I Institutua.....	44
7. ATALA	
Agur, Troodon arazoa.....	54
8. ATALA	
Buelta egunerokora.....	67
9. ATALA	
Dino-mita plana!.....	72
10. ATALA	
Jana eta lana.....	79



1. ATALA

Irismen handiko mega ametsak

Benjamin Franklin dut izena, baina gehienek Benji esaten didate. Pentsatuko zenuenez, gurasoek historiako asmatzaile handienetako baten izena jarri zidaten. Ederra egin zidaten, aizue! A ze erantzukizuna!

Benjamin Franklin



Benji Franklin



Has gaitezen hasieratik. Gurasoek sekulako asmoak... irismen handiko mega ametsak izan zituzten nirekin; eta, ez da harrokeria, baina nik ez nien hutsik egin. Sei hilabeterekin, zeinuen hizkuntza ikasi nuen. Hiru urterekin, banekien gitarra jotzen –akustikoa, jakina–. Eta bost urte nituela, sei hizkuntza hitz egiteko gai nintzen, baita izurdeen hizkuntza ere (EE-EEEEK!)

Amak esaten dit oso azkarra naizela, baina ni ez nago horren ziur. Gozoki gosez izaten ote dira egun osoan jenioak? Ni bai behintzat!


Benetako jenio batek, Albert Einsteinek, esan zuenez, "*ni ez naiz horren azkarra, kontua da problemak luzaroago erabiltzen ditudala buruan*". Bada, ni ere horrelaxe sentitzen naiz. Ez naiz super mega azkarra; baina berebiziko jakin-mina izaten dut, bai horixe!

Zorionez, aitak eta biok egundoko tailerra daukagu etxe atzean. Toki mundiala da denetariko tramankuluak asmatzeko (...edo apurtzeko).

Gaur egun tailer eta laborategi gisa darabilgun txabola aitona eraiki zuen, duela ehun bat urte. Eta ordutik, antzinako ibilgailu, etxaldeko bota zahar, herdoildutako motor, eta imajinatu daitezkeen erreminta uher bitxienez bete da. Hegaz, narras edo igerian egin dezakeen edozer egon daiteke bertan, apaletako anabasan ezkutatuta.

Aita, jakina, erreminta eta makineria horren guztiaren artean hazi zen, eta horregatik dakizki makina bat gauza! Oso trebea da aparatu berriak asmatzen. Hain da azkarra, iaz, esaterako, satellite bat eraiki zuen; auto bateko irratia, gurpil zahar bat, akuario txiki bat eta furgoneta bateko atzeko jesarlekua erabilita.

Orain dela aste batzuk, etxe atzetik jaurti zuen satellitea espaziora. Itzela izan zen!



Eskolako ikaskideek ez zidaten sinesten satelitearena kontatu nienean... harik eta FBIk ateratako argazkiak erakutsi nizkien arte. (Ez galdetu nola lortu nituen).

Behin, sateliteak bidalitako datuak jasotzen ari nintzela, aita iritsi zen. Aitonak utzi zion motozikleta zaharreen zetorren. Kaskoa kendu, eta esan zidan –Hamar minutu barru, piano eskola hasi behar duzu, Benji.

—Baina asteroideen arrastoari jarraitzen ari naiz!
—erantzun nion—. Ziztu bizian ari dira pasatzen gaur!

Aitak, ordenagailura hurbildu, eta datuei begiratu zien. –Ze itxura du gaur sateliteak? –galdetu zidan, sudur puntan erortzear zeuzkan betaurrekoak janzten zituen bitartean.

—Itxura ona –esan nion–. Ez du ematen asteroideak gaur orbitatik irtengo direnik.

—Albiste ona da hori –esan zuen aitak, “laborategiko” atea irekitzen ari zela–, lan handia baitut gaur egiteko.

Ontzitik uretara jausi eta itsasoan galdutako marinel batzuen berri irakurri zuen aitak egunkarian, eta, hori dela eta, txalupa zahar bat atoian tailerrera ekarri, eta arrantza-ontzietarako salbamendu sistema bat diseinatzen hasi zen. Aitaren asmoa zen marinelen jaka, prakak eta botak gailu magnetiko txikiz hornitzea. Horretara, marinela uretara eroriz gero, gailu magnetikoak indar egin eta kanporantz aterako luke bueltan itsasontzira.

—Nola doa traje magnetikoa? –galdetu nion.

—Oraintxe naiz probatxo bat egiteko, Benji –esan zuen, jaka magnetikoa jantzi bitartean–. Sartu txalupan nirekin, bai? Ikus dezagun traste hau behar bezain indartsua den, ni jaurti eta bueltan bidaltzeko!

—Seguru zaude ondo aterako dela? –galdetu nion.

—Ez horixe! Baina jakiteko modu bakarra dago.

Aitak txalupatik kanpora salto egin, eta behera, txalupa azpira, joan zen. —Marinela uretara! —egin zuen oihu.

Segurtasun botoia sakatu nuen orduan. Gorantz, ontzirantz jaurti beharrean, gailu magnetikoak airean bidali zuen aita, kanoi batek jaurtia balitz bezala.

DAMBA! Hantxe joan zen aita gizajoa txabola zaharreko zerutik zehar; leherketa handi bateko kanoi bola zirudien.

Arrapaladan irten nintzen ontzitik, “kanoikadak” txabolako horman irekitako zulorantz.

—Ondo zaude, aita? —galdetu nion, kezkatuta.

